

ETXEBARRIKO ENPLEGU ETA BERRIKUNTZAREN TOKIKO ESTRATEGIA

Posted on 13/10/2025 by Naider

Etxebarriko Udalak hausnarketa estrategikoaren prozesu bat jarri du abian, bere **Enplegu eta Berrikuntzaren Tokiko Estrategia** definitzeko, **2024-2027 Berrikuntzaren Plan Estrategikoaren** esparruan. Ekimenaren helburua da arlo horietako erronka eta aukera nagusiak identifikatzea eta etorkizuneko **Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren eta Berrikuntzaren Udal Agentzia** sortzeko oinarriak ezartzea, arlo horietan udal-zerbitzuak bateratu eta indartzeko.

Naidere garatutako lanak analisi teknikoa eta tokiko eragileen parte-hartze aktiboa uztartzen ditu. Horren baitan egiten da udalerriko **testuinguru ekonomiko, enplegu eta enpresarialaren diagnostiko integrala**, berrikuntza eta ekintzaitza ekosistemaren azterketa eta epe ertainera begirako proposamen egituratu baten formulazioa. Ikuspegi honek estrategia sendo eta bideragarri bat diseinatzea ahalbidetuko du, **2023ko Euskal Enplegu Legea** bezalako araudi-esparruekin lerrokatuta.

Gainera, proiektuak **aukera-eremuak** identifikatzea ez ezik, gobernantza-ereduari eta tokiko ekonomia sustapeneko sistemaren etorkizuneko antolakuntzari buruzko hausnarketa ere barne hartzen du. Estrategia honen bidez, Etxebarri bere lehiakortasuna sendotu, tokiko talentua sustatu eta garapen jasangarri eta kolaboratiboago baterantz aurrera egin nahi du.

